

<b>Berdintasun zerbitzua</b>		<b>Getxoko Udala</b>
<b>Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA</b>		

**Bileraren datuak:**

Data: 2018-05-17

Lekua: RKE

Ordua: 16:30etik 18.15era

**Bertaratutakoak:**

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo Urbitzazu

Roda: Clara Lorenzo Quevedo

EH Bildu: Nerea Gujarrubia García

Ciudadanos-Herritarrak: Carlos Escalera Lana

EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas

GUK: Susana Andollo Gonzalez

Udal Talde Sozialista: Josefina García Palacio

ELA: Elvira Lemona Díaz

Berritzegunea: Emilio Martinez Hortal

Lehendakaritza: Keltse Eiguren Alberdi

Idazkaria: Bego García Martínez

Eskuz-esku: Isabel Perez Ares

**Bertaratu ez direnak:**

Emakumeon Ahotsa

Talde Popularra

Gizatiar

**Gai zerrenda**

- Aurreko akta onartzea
- Emakumeen aurkako indarkeria kasuetako erantzun publikoaren protokoloaren onspena
- 2018ko jaietako kanpaina
- Ekainaren 28a, LGTBI eskubideen aldeko eguna
- Galde-eskeak

## **Aurreko akta onartzea**

---

Aho batez onartu da aurreko bilerako akta.

## **Emakumeen aurkako indarkeria-kasuetako erantzun publikoaren protokoloaren onespena**

---

Ez da ekarpenik ez iradokizunik egin aurretik saiora bidalitako dokumentuari buruz. Aho batez onetsi da Emakumeen aurkako indarkeriazko kasuetan erantzun publikoa emateko protokoloaren berrikuspen testua.

## **2018ko jaietako kanpaina**

---

Berdintasun teknikariak adierazi du maiatzaren 14an batzarra deitu zuela jai batzorde guztiekin, beraiekin 2018ko jaietako kanpainaren diseinua adostu edota koordinatzeko. Deialdira etorri ziren Hezetasuneko, Portu Zaharreko, Santa Anako, Algortako, paelletako eta Romoko jai batzordeak. Haietako batzuek udalarekin koordinatzeko joera nabariagoa izan zuten beste batzuek baino. Oro har, batzorderik handienak autogestionatu egiten dira, eta ez dute behar hainbesteko laguntzarik udalaren partetik. Txikienek, ordea, udalaren laguntza gehiago jasotzea eskertuko lukete.

Nolanahi ere, batzar hau noiz egin den kontuan izanik (batzordeak jaien antolaketan murgilduta daude), auziari berriro azaroan heltzea proposatu da, 2019ko jaietako kanpaina prestatzeko helburuz.

Berdintasun teknikariak 2018ko jaietako kanpainarako proposamenaren berri eman du. Honetan datza:

- Logo baten diseinuan, Getxo sexu erasoen aurkako udalerrria dela adierazten duena. Logorako eta lelorako proposamenak eskatu ziren eta, berdintasun eta udalburutza arloetan, jai batzordeetan eta berdintasun kontseiluan kontrastatu ondoren, hau hautatu zen:



Bilguneren ordezkariak proposatu du jai inklusiboak prestatu daitezela, eta interseksionalitatea kontuan izan dadila. Jaietan, sexu erasoak ez ezik, patriarkatutik eta botere-harremanetatik sortzen diren gainerako zapalketak kontuan izan behar dira: arrazakeria, homofobia, eta abar.

Berdintasun zinegotziak adierazi du oraingoz sexu erasoak baino ez direla aztertuko; halere, immigrazio arloarekin lankidetzan aritzeko lerro bat ireki daiteke.

- Paelletan, Portu Zaharreko, Algortako, Romoko eta Mesedeetako jaietan egin beharreko ekintzak. Aukeratutako logoarekin mosaiko bat egitea proposatzen da. Oraindik jendearen parte hartzea eta lekua zehazteke daude.



- Totemak, logoarekin eta kanpainarekin. 2017ko jaietatik udalak antolatutako kanpainetan erabili diren totemak berreskuratuko dira.

ELAren ordezkariak esan du paellen jaietan, zehazki, gazteak gaueko hamaiketarik aurrera biltzen diren lekua zaindu gabe geratu ohi dela, poliziaren presentziarik gabe. Horrek emakume asko babesik gabe uzten ditu; beldurra areagotzen da, eta erasoak pairatzeko arriskua ere bai. Berdintasun zinegotziak esan du jaietan dispositibo berezi bat dagoela eta horren bidez udaltzainen presentzia areagotzen dela. Udaltzainek kontu berezia daukate norbait jaien perimetrotik irteten bada. Halere, dagokionari jakinaraziko dio.

### **Ekainaren 28a, LGTBI eskubideen aldeko eguna**

---

Berdintasun teknikariak ekainaren 28ari buruzko proposamenaren berri eman du. Kasu honetan mahai-inguru bat da, "Transexualtasunetara hurbiltzen" izenburua daukana. Ekainaren 23an, larunbata, 11:00etan, Getxo Elkartegian.

Teo izango dugu gurekin. Besteak beste, "de Berta a Teo" dokumentala erakutsiko digu, bere genero-aldaketako prozesuaren berri emateko. Teorekin batera Bea egongo da. Hark informazio gehiago emango digu transexualtasunaz haurtzaroan, eta familiei eta umei lagun egiteaz; iaz ere Getxon izan zen gurekin. Teo eta Bearekin batera Aitzole egongo da. Hark gure jendartean dauzkagun trans mitoez jardungo du, eta aurkeztu diren azken lege-proposamenak azalduko ditu. Etorkezunaz ere mintzatuko da, legearen, erakundearen eta jendartearen ikuspegitik.

## Galde-eskeak

---

Adierazi da maiatzaren 21ean RKEan DENON ARTEAN/ENTRE TODAS liburua aurkeztuko dela, emakumeek Getxoren historian egin duten ekarpenari buruzko ikerketa-bekaren hirugarren edizioaren emaitza dena.

Gainera, Jabekuntza Eskola amaitzeko saio bat antolatzen ari da, sexualitateaz eta ipuin erotikoez, Inma Merino eta Virginia Imazen kontura, ekainaren 6rako.

Guken ordezkariak egun bat ipintzea proposatu du, azaroaren 25aren inguruan izan daitekeena, indarkeria matxistari aurre egin eta egiten dioten emakumeak oroitzeko. Horrela, ekitaldi hau erreparazio eta oroimen prozesuan txertatuko litzateke, aurreko kontseiluan adierazi zenez.

Kontseiluaren hurrengo batzarra EKAINAREN 21ean izango da, Romo Kultur Etxean, 16:30ean.